

MORROI BIZKORRA

Mendatako Margari Zenigaonaindiak kontatuta

Hiru anai egon ziran baserri etxe baten eta gurasoak esan ei eutsien baze:

– Bueno, hemen ataraten danagaz ezin geinke mantenidu eta baten batzuk kriadu urten beharko dabe ba...

– Bai, bai, bai.

Esan eutseen semeak eta seme haunditxuena presentatu ei zan:

– Neu, neu joango naz. –esan ei eutsien–.

– Bai baina... tira ba. –amak esan eban–.

Amari pena haundia emon eutsan mutila etxetik joateak, baina antzina ez zan egoten nundik bizi eta nundik jan bere ez eta joan egin behar.

Joan ei zan taka taka eta gizon bat topatu ei eban:

– Zer morrozko? –esan ei eutsan– nora zoaz ba? –eta...–.

– Hemen noa, ia etxe bat topetan badot eta kriadu...

– Ondo, ondo, geure etxean falta egiten dau –esan eutsan gizonak–.

– A bueno ba!

Joan da hara etxera eta... ugazabak esan eutsan zeintzuk beharrak egin behar ebazan. Jornala ehun duket izateko gelditu ziren eta kukua etortzen zan arte egoteko, baina bata edo bestea denbora baino lehenago haserretzen bazan paluagaz emon–emon egin eta botateko izan zan.

– Bai ugazau, bai konforme naz.

Berak pentsatu egin ei eban orduan baze:

– Neuk ezagutuko zaitut noraino heltzen zarean – mutilak pentsatu ei eban bere artean–.

– Bueno oin arratsaldean solora joango zara eta... haixe soloa egingo dozu aratu¹ eta behar den moduan ipini e...

– Bai, bai ugazaba zeuk gura dozun moduan.

Joan ei ziran eta entsegida etorri jako etxera, baina ugazabak bijilau egiten ei eban bentanatik ia ezer dagoen eta... behiak izerdi hutsean ekarri ebazan jo eta jo eta jo, eta ugazaba ernegetan. Mutila heldu zanean:

- Ugazau eginda daukazu!
- Bueno pasatu zan hori eta arratsaldean:
- Zu joan azpigarri ebaten eta bihar joango gara biok bila.

Joan ei zan mutila ebaten eta ez eban azpigarri apur bat baino ebagi eta etxera etorri zanean esan ei eutsan ugazabak:

- Bueno ederto, burdi bete ebagi dozu ezta?
- Bai ebagi dot, ebagi dot.
- Ekarri egingo dogu haixe azpigarria –esan eutsan ugazabak–.

Biharamon goizean joan ei zan eta azpigarri apur bat baino ez ei eban euki:

- Hau da dana? –esan deutso ugazabak–.
- Ugazaba hasarre zara ala? gitxi deritzozu ala?
- Ez, ez, ez, ez, ez...

Jakin eban harek mutilak joko ebana eta ugazabak zera esan eutsan:

- Bueno ba, ondo dau.

Joan dira etxera taka-taka aldapan behera eta:

– Hor hain dago zulo haundia behiak burdi eta guzti horra ajusten badira hilko jakuz eta ez doguz altxetan e... –esan eutsan ugazabak–.

- Bai ugazaba altxatuko doguz, horren bildurrik ez euki.

Ugazaba aurretik eta mutila atzetik eta, sakatu eta sakatu aldapan goitik behera bota deutzaz behiak eta burdia basatzara eta gero ezin atara.

- Hasarre zara ala ugazau?
- Ez, ez, ez, ez... ez naz hasarre –esaten ei eutsan–.

Azkenean itxi dau bertan burdia, hartu dauz ganaduak eta etxera joan danean esan deutso andreari:

– Ai ene!, guk honegaz mutilagaz ezin dogu karredarik egin, ia ganaduak be hil egin deuskuz, mankatu, zer egingo deutzagu?

- Txarrikunek erosi ei eutsezuz, eta txarri saltzen bota egizu!
- Bai, horixe egin behar dot!

Joan eta txarrikuna panda bat erosi deutso eta esan deutso baze:

- Txarriak saltzea gustetan jatzu?
- Bai, bai ugazaba zeuk esaten dozun moduan e...

Eta joan da eta txarrikune piloa ipini deutso. Egiten ei eban tratua buztan zatitxu bat eta belarri punte biak berarentzat izateko. Danak saldu dauz!

Burdia eta behiak jausi ziran bertan basatzen belarri punte biak eta buztan punta koloketan ebazan, eta txerriak entsegidako salduta etorri da etxera eta ugazabak:

- Derrefente saldu dozuz!
- Bai ugazaba derrepentean.
- Arin!
- Saldu ez ugazaba, han basatzen sartu jataz eta ezin atara ezelan be, zeuk etorri behar dozu!
- Ene Jesus! joango naz –esan deutso–.

Joan dira eta ugazabak be esan deutso:

- Hau da *triskentza**, oratu fuerte morroi!

Tiretu eta tiretu eta belarri eta buzten puntetik gelditzen ziran eskuetan eta azkenean ezer ezin egin harekaz be. Etorri dira etxera eta andreak esan eutsan:

- Bueno ezin dozu horretara karredarik egin, deskuido santuen zuk bera despatxetan badozu zu manketan zaitu e...
- Klaro!

Ehun duketeko jorrala izateko egin eben eta kukue etorten zanean joateko etxera, eta bestela arinago bata edo bestea hasarratzea bazan ha mankatu, bata bestea.

Andreak esan eutsan:

- Egin eiozu hauxe!

Etxe aurrean euki ei eben orriz beteriko ereinotz haundi-haundi bat.

- Ni hantxe plantauko naz, ereinotzaren barruan eta nik handik egindo dot, kuku kuku...
- Edarto pentsatu dozu andrea. –Esan deutso–.

Plantau da andrea han eta mutila etor zanean:

- Txo! ez dozu entzuten kuku zaratarik?

– Neuk be horixe pentsatu dot ugazaba, kuku zaratea ezta? –Esan deutso mutilak–.

– Ene begitu oraintxe –esan deutso ugazabak–.

Kuku, kuku, kuku, kuku, kuku.....

– Asike zuk hemengo denbora egin dozu eta soldata emongo deusut eta joan egingo zara.

– Baina ugazaba pentsatu dot kukue barik kukea dala gero!

– Kukue ala kukea baina txoria da behintzat.

– Ondo dau, ondo dau.

Bueno, ugazaba despedidu dau eta:

– Orain kukue ala kukea dan ikusi behar dot ugazaba.

– Ez, ez, ez... ez zaitetz molestau horretan.

– Bai, bai, bai ez da beharra be eta!

Eta harek mutilak eskopetatxu bat euki eban, igon dau taka–taka eta emon deusaz tiro bi eta... koitada goitik behera erori da bere gona haundiekin, eta mankatu deutso emaztea.

– Hau da beharra –esan dau ugazabak–

– Hasarre zara ala ugazaba?

– Ez, ez, ez, ez...

Ostantzean harek morroiak bere ugazaba be mankatzen eban eta...horixe pasatu eta zuzen boteu eben morroia, baina harek ondo egin eban, eta soldata irabazita joan zan etxera.

1 Aratu: Ariekin soloan lan egitea

Mendata gure geurea denentzat

Idoia Malllea Lamikiz

Mendatako Udala

Bilbo 2002